

2/2019 TXOSTENA, OTSAILAREN 7KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA

XEDEA: HORNIDURA-KONTRATUKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIAREN ZIRRIBORROA (PROZEDURA NEGOZIATUA)

I.- AURREKARIAK

Indarrean sartu da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora). Ondorioz, orain arte nahitaez sartu behar ez ziren alderdi batzuk sartu behar dira baldintza-agirietan, eta, halaber, berriro definitu behar dira aztertzen gabiltzan prozedurako izapide eta figura batzuk eta kontratu-mota.

Era berean, kontuan hartu eta islatu egin behar dira, baldintza-agirien ereduak egitean eta ahal den neurrian, kontratuen inguruko errekurtsoen auzitegi administratiboen ebazpenak eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, bereziki Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren ebazpenak, bai eta autonomia-erkidegoko, Estatuko eta, batez ere, Europar Batasuneko jurisprudentzia ere, etengabe baitaibilitza interpretatzen Europako Zuzentaruak eta haien ondorio eta transposizioak.

Beste alde batetik, aldatu egiten da kontratua prestatzeko ekintzak kontratatzailearen profilean argitaratzeko modua, beste ekintza batzuk argitaratu beharko baitira, eta baldintza-agiria laguntza egokia izan daiteke hori gogorarazteko.

Horregatik prestatu da esku artean dugun eta batzorde honek ezagutzera ematen duen Administrazio Klausula Berezien Agiriaren zirriborroa.

II. - ALDEZ AURREKO KONTSIDERAZIOAK. TXOSTENA IGORTZEKO ESKUMENA

Administrazio Klausula Berezien Agiriaren zirriborroari buruzko txostena emateko eskumena du Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 4. apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

Dekretu horren 30. artikulua araberak, Aholku Batzordeari dagokio dokumentu horren gaineko txostena emateko eskumena.

III. - EDUKIA

Hauxe da testuaren edukia: Kontratuaren klausula bereziak, Baldintza orokorrak eta Eranskinak.

Halaber, hiru multzotan egituratzen dira kontratuaren klausula bereziak: Prestazioaren ezaugarriak, Adjudikazio prozeduraren ezaugarriak eta Beste zehaztapen batzuk.

Kontratuaren baldintza orokorrak honela daude banatuta: Kontratuaren xedea eta gai orokorrak; Lizitazioa; Gutun-azalak irekitzea, eskabideak aztertzea eta eskaintzak balioztatzea; Kontratua esleitzea eta formalizatzea; Kontratua gauzatzea; Iraungitzea; eta Gorabeherak eta egintzen berrikuspena.

Azkenik, kontratazio-prozesuan laguntzeko zenbait eranskin ere badaude, hauek argitze aldera: agiriaren alderdi jakin batzuk gauzatzeko zer informazio ekarri behar den; gutun-azal bakoitzean zer dokumentazio sartu behar den eta eskaintza onena duen lizitatzailleak edo kontratua gauzatzeko fasean dagoen kontratistak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

IV.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK

Baldintza-agirien proposamen honetan errespetatu den arau-esparrua Europar Batasuneko kontratazioaren arloko zuzentarauak dira (ikusiko dugun bezala, horien transposizio partziala egin da), eta zuzentarau horietako printzipioak

izan beharko dira kontrataziorako baldintza-agiri guztien oinarria. Hauek dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentaraua, emakida-kontratuei buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, Kontratazio Publikoari buruzkoa eta 2004/18/EB Zuzentaraua indargabetzen duena; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/25/EB Zuzentaraua, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan diharduten erakundeek egindako kontratazioari buruzkoa eta 2004/17/EB Zuzentaraua indargabetzen duena.

Testua bat dator 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentaruaren transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiteko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean agindutakoarekin (aurrerantzean, SPKL), baita lizitazio publiko bat prestatzeko eta argitaratzeko beharrezkoak diren agiriak egiteko ezartzen duenarekin ere. Bereziki garrantzitsua da testu horretan ezarritako erregulazio zehatza: SPKLren 166. artikulutik 171. artikulura, biak barne.

Halaber, SPKLak indargabetzen ez duen guztian, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua ere betetzen du.

Horretaz gain, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua betetzen da, indarrean egoten jarraitzen duen guztian, bereziki, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren hainbat manu aldatzen duen abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretua onetsi zenez geroztik (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsita).

Kontratazio publikoan eragina duten lege- eta erregelamendu-xedapen hauek ere kontuan hartu dira:

- 2/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Espainiako ekonomiaren desindexazioarena.



- 55/2017 Errege Dekretua, otsailaren 3koa, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duena.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa sustatzekoa eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzekoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 15/2014 Legea, irailaren 16koa, Sektore Publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzkoa.

V.- ONDORIOAK

Hori guztia kontuan hartuz, aldeko txostena eman zaio zerbitzu-kontratuko Administrazio-klausula partikularren Agiriaren zirriborroari (prozedura negoziatua), Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea (9/2017 Legearen bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora) eta alpatutako gainerako araudira egokitua.